



EBAZPENA, 2011ko maiatzaren 2koa, Hezkuntza sailburuordearena, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialetan, 2011-2012 ikasturterako eskola-egutegia egiteko osagarritzko arautegia ematen duena.

Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizial guztietan 2011-2012 ikasturterako eskola-egutegia ondoko honi lotuko zaio:

1.- Iraileko azterketei, ebaluaketei eta ikasturte berriaaren hasierarekin zerikusirik daukaten betebeharrak guztiei, irailaren lehen emango diete Hizkuntza Eskola Ofizial guztiek.

2.- 2011-2012 ikasturteko klaseak ezingo dira 2011ko urriaren 3a baino beranduago hasi, ezta 2012ko maiatzaren 29a baino lehenago bukatu ere.

3.- Ikasturteak 175 irakastegunetako iraunpena izango du. Eragin hauetarako, klasea emateko egunak (130 gutxienez) eta ikasle ofizial eta libreentzako azken azterketak egiteko erabiltzen direnak besterik ez dira irakastegunak izango. Ekainaren azken azterketak 2012ko maiatzaren 30ean hasi ahal izango dira.

2011-2012 ikasturtearen aurkezpena egiteko erabiliko den eguna klase-eguntzat hartuko daiteke.

Uztailean zehar Zuzendaritza Taldeko kideek, euren karguen propio diren zereginak beteko dituzte. Hilabete horretan eta klaseak ematen ez diren ikasturteko beste aldietan, (abuztuaren salbu), zuzendaritza-taldeko kide bat, gutxienez, beti izango da ikastetxean edo berehala ikastetxean izateko moduan.

4.- Ezinbestekoz klase-egun gutxiago beteko balitz, berregokitu egin beharko da egutegia, 130 egunotara iritsi arte, beti ere langileen eskubideak betetzen direlarik.

Nahiz eta egunen batean ikasle batzuek edo ikasle guztiak klasera ez joan, Ikastetxeak klaseak ofizialki programaturiko ordutegiaren arabera eskaintzen jarraitu behar izango du.

Egutegia berregokitu behar denean hasieran egiteko erabili zen prozedura berbera jarraituko da.

Dagokion Aginte-organismoak ez badu berregokitze proposamenik egiten, Hezkuntzako Ikuskaritzak egin dezan eskatuko dio. Erantzunik ezean, Hezkuntzako Ikuskaritzak egutegia berregokitu eta ikastetxeari jakinaraziko dio.

5.- Eskola-egutegia egiteko, dagokion urteko Autonomia Erkidegoko lanegunetako jaiegunen egutegi ofizialaren arabera jaiegun izaera dutenak izango dira jaiegunak, baita herri edo dagokien lurraldeko zaindarien jaiegunak ere. Edonola ere ezin izango da jaiegun hauetakoren bat eskola-egun edo eskolak ematen diren egun bezala hartu.



Ikastetxeek, nahi izanez gero, jaieguntzat hartu ahal izango dute mailako zaindariaren eguna, dagokion egunean zein aukeratzin duten ordezkaturako beste egun batean ospatuz. Edonola ere ezin izango da jaiegun hori eskola-egun edo eskolak ematen diren egun bezala hartu.

6.- Eguberritako oporraldiak 2011ko abenduaren 24tik 2012ko urtarrilaren 6rarteko aldia, gutxienez, hartuko du, bi egun horiek barne.

Aste Santuko oporraldiak, 2012ko apirilaren 5etik 9ra bitarteko aldia, gutxienez, hartuko du, bi egun horiek barne.

7.- Eskola egutegiaren proposamena tramitatzeko 2008ko martxoaren 10ean Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak emandako Aginduko 9. atalean ezarritakoari jarraituko zaio, (2008ko apirilaren 25eko EHAA).

2011ko ekainaren 1a baino lehen, ikastetxeetako zuzendariak hurrengo ikasturteko eskola-egutegiaren proposamena igorriko dute dagokien Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzara, eskuduna den gobernu-organoak hori onetsi zuen bilkurako aktaren kopia erantsiz.

Ikastetxeek, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak horretarako espreski diseinaturiko aplikazio informatikoa erabiliz egin behar dute proposamena, beti ere Hezkuntzako Ikuskaritzak jakinaraziko dien argibideak jarraituz.

Egutegi proposamena ikastetxeko O.O.G.k egingo du, baina ikastetxeren batean organo hori osatu gabe badago, irakasleen klaustroak egingo du egutegi proposamena.

8.- Ikastetxeren batek, finkaturako epealdiaren barruan beren eskola-egutegiaren proposamena bidaltzen ez badu, edo bidalitakoa onartzen ez bada, dagokion Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzak egindakoa onartu behar izango du.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko maiatzaren 2a

HEZKUNTZA SAILBURUORDEA

Izp.: M^a Antonia Ozcariz Rubio